

KONTZERTUAK HM Txokoan

Udaberriko kontzertua

2007ko maiatzaren 12an - arratsaldeko 6,30tan - HM Txokoan

INAZKI TALDEA

Talde honen arima Lapurdiko musikari batzuk dira, geroago nafar musikari pare bat hurbildu zaielarik. Momentu honetan, Inazki taldeak ondorengo musikariok osatzen dute:

Kristian Borda (soinua)

Jose Angel Elizalde (soinua)

Mintxo Garaikoetxea (xirula-tronpeta)

Battite Garat (tronpeta)

Sebastián Othaburu (bibolina)

Paxkal Saintestebe (perkusioa).

Urtean zehar mota ezberdinetako saioetan parte hartzen dute: inauterietako desfileak, kabalkadak, besta berri, herriko jaietan eta ezkontzetan dantzarako musika, kantu bazkarietan eta abar... Besteak beste Zubieta, Ituren, Arizkun, .. izaten

dira talde honen bisitak urtero jasotzen dituztenak

Taldearen osaerak ere markatzen ditu bere errepertorioa eta funtzionalitatea. Izan ere Iparraldeko eta Nafarroaren mendi aldeko herri festa tradizionalak erabiltzen diren musikak osatzen dute Inazki taldearen doinu bilduma. Festa horien izaera bereziak bestalde, behartu egiten ditu musikari hauek errejistro ezberdinetan aritzeko: kalean eta bazkalondokoetan, dantzarako musikak jartzen edo kantu tradizionalak laguntzeko euskarri instrumental ezin egokiago eskeiniz.

Saio honetako programa, urtean zehar jotzen dutenaren laburpen bat izanen da (martxak, fandango, arin-arin, kantu zaharrak, kontradantzak...)



DANI GARCIA DE LA CUESTA

Asturieso bandurria kontzertua

Daniel Garcia de la Cuestak Asturiesko bandurriaz gain bibolin tradizionala, gaita, harpa, guitarra, flautak eta perkusioak ere jotzen ditu. Dantza tradizionala ere ondo ezagutzen du eta zenbait medioetan hitzaldiak ematen ditu gai hauei buruz. Argitaratu ditu zenbait idazlan herri musika, dantza eta etnografiari buruz, horien artean bandurriari buruzko ikasbide bat.

Folk talde ezberdinetan hartu du parte, aipagarriena "Lliberdon" izenekoa izanik eta beste musikari askorekin egin du lan. 98-99 kurtsoetik gaur eguneraino bandurria eta bibolina irakasle sortzailea da La Quintana Xixongo Musika Tradizionaleko Eskolan.

Kontzertu honetan kantauk, erromantzeak, koplak, dantzak, jotak, "asturianadas" entzungo ditugu, guztiak Asturiesko tradizioetik jasota. Besteak beste:

Carretera abaxu va
Valsiao
Nun tabes allí
Estoi llocu
Ríu verde
El mozo arriero
Dame un besu
Rabilada
Rico franco
Les barandielles
Saltín
La hermana cautiva
Si vas al campu de Casu
Sones baillables
Coples



Udaberriko kontzertua HM Txokoan

AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Orain arte bezala, afaria antolatu dugu Auzokalte elkartearen (Herri Musikaren Txokoaren ondoan) musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko. Izen emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua murrizta baita. Prezioa: 15 euro.



**kontzertu honen
laguntzaileak:**

